

# ZERBITZUAK ETA TURISMOA



## EGOERA

Langile okupatuak %15-20 autonomoak/ekintzaileak dira, pisu handia dute sozioekonomian. Konkrituki EAEn autonomoen tasa %19koa da, 2016an 175.000 langile, hauetatik 55.000 inguru kooperatibistak direlarik, eta gainontzekoen artean autonomo gehienak zerbitzutan (komertzioa, ostalaritza, gremioak, ...) daude. Beraiei zuzenduriko politika publikoak eskasak dira, eta ekonomian duten pisua kontutan izanik, beharrezkoa da espresuki beraiei zuzenduriko neurriak lehentasunez martxan jartzea.

Europako egoerarekin alderatzen badugu, non batzuk besteko tasa %14a den, Europa hego eta ekialdeko herriak dira, merkatu laboral ez-egonkorrenak dituztenak, tasa altuena agertzen dutenak (Grezia, Espainia, Italia, ... %25-30) eta beste muturrean daude ekonomia dinamikoagoa eta lan merkatu egonkorrak dituztenak (Alemania, iparraldeko herrialdeak, ... %10)

Langabezi tasarekin konparaketa egiten badugu, langabezia tasa altuak dituzten herrialdeek autonomo tasa handiak dituzte, eta alderantziz, langabezi tasa baxuak dituzten herrialdeek gutxiago, beraz, ondorioztatu genezake Lan Autonomoa langabetuentzat alternatiba batean bilakatu daitekeela, beti ere politika publiko egokiek lagunduta baldin badago. Oso kezkarria da azken urteetan hainbat sektorek bizi duten egoera: langileek pairatzen dituzten lan baldintzak kaxkarrak dira, negozioak etengabe ixten ari dira, ez dago erreleborik, handiak txikiari ez dio espaziorik uzten,... egoera hau irauli beharra dago.

Turismoari dagokionez, argi dago orain arteko politikek ze ondorio izan dituzten: turismoa ohiko hirigune turistikoetan metatzen da eta irizpide jasangarrietatik urruti dago.

## HELBURUAK

Zerbitzutan diharduten langile eta profesional asko eta asko autonomoak dira eta politika publiko egokiak beharrezkoak dira beraien lana balioan jartzeko. Aberastasun sortzaile izanik, autonomo/ekintzaileen figura duindu behar da, egun duten babes soziala handituz.

Turismoari dagokionez, sektoreko eragile guztien oniritzia jaso zuen legea onartu genuen, eta bere garapenerako beharrezko baliabide guztiak jarri behar dira, beti ere irizpide orekatu eta jasangarrietan oinarrituz.

## NEURRIAK

**1** Lan Autonomoaren Kontseilua sortuko dugu, autonomoen kasuistika ezberdinak jorratu ahal izateko eta kolektibo osoari ahalik eta erantzun egokiena emateko. Kontseilua arautuko duen legea aurkeztuko dugu.

**2** Autonomoentzako neurri fiskalak eta gizarte segurantzari dagozkionak aztertuko ditugu, kontseiluarekin batera, beti ere kolektiboaren lan baldintzak duintzeko balioko dutenak:

Langile independenteentzako gizarte-segurantzarako kotizaziotik salbuetsitako minimoa ezarri.

Benetako diru sarreren arabera kotizazioa lotu.

Prestazio sozial duinak bermatu kolektiboari.

Iruzurra ekiditeko neurriak diseinatu, bai fiskalak eta baita lan inspektzioari dagozkionak.

Hau aurrera eramán ahal izateko baina, eskumenak falta zaizkigu, Gizarte Segurantzarena konkretuki, aspaldiko aldarrikapena izanik.

**3** Kreditua errazteko politika publikoak martxan jarriko ditugu, autonomoei/ekintzaileei espresuki zuzendurikoak.

**4** Klausula Sozialak ezarriko ditugu bertako enplegua bultzatzeko.

**5** Tokiko administrazio edo eskualdeko garapen agentzietatik, ixtera doazen negozio txiki horiek aztertzeko zerbitzu bat martxan jarriko dugu, bideragarritasun planak egin eta gazteek har dezaten plangintza bat egiteko (belaunaldi erreleboa). Negozioa lagatzen duenaren egoera ere aztertu beharko litzateke (erretiro pentsioak, ...)

**6** Etengabeko formakuntza bultzatuko dugu langile autonomoetan ere, eta formazio dualaren eskaintza autonomoei ere zabalduko diegu.

Zerbitzuen artean badaude hainbat sektore bizi duten egoeragatik kinka larrian daudenak. Sektore hauetatik eskaera konkretuak egin izan dituzte, merkatariek, eraikuntza sektoreak eta garraiolariek kasu, eta berauek aurrera eramango ditugu. Baina orokorrean, kolektibo ezberdinekin harreman zuzenean jartzeko konpromisoa hartzen dugu, beraien eskaera konkretuak aintzat hartu ahal izateko.

**1** Merkataritzari dagokionez:

Merkatari txikiak eta hurbilak, bidezko merkataritza-merkatu soziala, bertoko produktuak, gune turistiko-historikoak zaindu eta babesteko beharrezko neurriak hartuko ditugu.

Merkataritza biziberritzeko plan estrategikoa egingo dugu, beti ere eragileekin elkarlanean.

Erosketarako zentroak edo internet bidez saltzeko plataformak martxan jartzea aztertuko dugu.

Egungo ordutegien legea betetzeko eta ez aldatzeko konpromiso irmoa mantenduko dugu.

Merkataritza gune handietako Lurralde Arloko Planak aldatuko ditugu, proiektu berriei atea ixtea helburu izanik.

## 2

Eraikuntzaren sektoreak, eta berau osatzen duten gremioek orokorrean, birmoldatu beharra dute, eta horretarako erraztasunak eskaini behar dira:

Lanak, espazioak eta etxebizitzak birgaitzea, leheneratzea eta zaintzea lehenetsiko dugu, etengabe berriak egiteko aukeraren aurrean.

Eraikuntza ekologikoaren eta horretarako beharrezko materialen sektore berrian inbertsioa bultzatuko dugu.

Eraginkortasun energetikoan oinarritutako eraikinak eta instalakuntzak sustatuko ditugu, energia-iturri berriztagarriak bultzatuz.

## 3

Garraiolarien berezitasunak kontutan izan behar dira: jasaten duten kompetentzia ez-leiala, gertatzen ari den enpresen deslokalizazioa eta bertako langileak sufritzen ari diren lan-baldintzak, desgertzeko arriskuan dagoen garraiolari txikien sare espezifikoak, ... Euskal garraiolarien kolektiboa duintzeko neurriak hartuko ditugu:

Garraiolari izateko lanbide heziketako formazio espezifikoak sortu.

58 urte baino gehiagoko eta gaixotasun profesional larriak dituzten garraiolari autonomoentzako laguntzak, aktibitatea utzi beharrean aurkitzen direnean (sektorearen betiko eskaera dena).

Azken urteetan ugaritu diren garraio kooperatiba faltsuen aurkako administrazio arteko ekintza plana diseinatu eta martxan jarri.

Ibilgailuen inspektzio periodikoak martxan jarri, bereziki kabotajeko arau minimoak betetzen ez dituzten zirkulazioko ibilgailuei edo/eta zamen kontratazioan oinarritutako arauak betetzen ez dituztenei (prezioak, ordutegiak, pisuak, ...).

Barne garraioaren kontratazioaren aldeko defentsa egin lurralde barruko garraioan.

Gasolioaren prezioaren barioaren arabera garraioaren prezioa eguneratzea arautu beharra dago, bertan lan egiten duten garraiolari eta kargadoreek bete beharrekoa, izan bertokoa edo atzerrikoa.

Ibilgailuak erosi edo/eta egungo garraio flota berritzeko laguntzak martxan jarri.

## 4

Turismoa

Turismoa modu jasangarri eta orekatu batean antolatuko dugu, baita ingurumen eta giza ikuspegi batetik ere.

Turismo deszentralizatu baterantz joko dugu, ohiko gune turistikoek gain gure lurraldea bere osotasunean ezagutarazteko, ditugun aberastasun guztiak balioan jarriz (natura, kultura, ohiturak, gastronomia, ...)

Sektoreko langileen artean ematen den prekarizazioaren aurka borrokatuko dugu, lan baldintza duinak defendatuz.

Industriarekin loturiko turismoa bultzatu eta honetarako erakunde-sarea antolatu, enpresak promozionatzeko beste bide bat irekitzea helburu izanik.